



Ubillaganekoa (-a) etxebizitza

Aldacrak: Ubillagoikoa

Ahozkoa: Ubillegane / Ubillagane / Lanpárrena

“... la casería nombrada Ubillaganekoa... en la cofradía de Sarria, en jurisdicción de la anteiglesia de Berriz... es de moderna construcción y se compone de planta baja, piso principal y segundo, ocupa de planta con inclusión de la franquicia setenta y siete estados equivalentes a doscientos noventa y siete metros cuarenta y siete decímetros cuadrados...”

DJE, 2/209 or. (1870)



43° 11' 33"

2° 36' 13"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

Baserri honen gaineko lehen aipu dokumentala 1825. urteko polizia-errodan aurkitzen dugu: *Ubillaganekoa*. *Ubilla* (**Ikus Ubilla**) baserriaren goialdean zegoen kokatuta jatorrian, eta sute baten ondoren, familiak beheko partean zuen lurretan eraiki zuen baserri berria, *Ubilla* baserriaren ondoan. Ondoan zuen baserritik bereizteko, *Ubillaganecua* (1866, DJE, 2/ 33. or.) eta *Ubillaganekoa* (1897, DJE, 7/ 11. or.) moduan agertzen da erregistratuta. Auzotarren artean, *Ubillegane*, *Ubillagane* eta *Lanpárrena* formak erabiltzen dira.

XIX. mendeko etxea, 1870ean egin berria zena. Alboan, beste alde bat erantsi bazioten ere, etxearen hasierako taxua bistakoa da. Bi isurkitako teilatua eta goranzko joera du, hiru ardatzetan antolatutak izanik bao guztiak. Horrela, beheko solairuan, atea eta alde bakoitzean, leiho bana ditu. Gainekoan, hiru leiho ditu, behekoekin lerrokatuta, eta ganbaran, egurrezko balkoia. Harlangaitzez egin zuten, ohitura zen moduan, eta kantaletarako eta bao inguru guztiak egiteko utzi zuten harlandua.

toponimia

Leku bat baino gehiagotan dugu izen hau Euskal Herrian eta ulergarria da egoera hori esangura ikusita. Toponimo honen osagaiak ur eta bil dira, hau da erreken elkargunea. Izenaren bigarren zatia dagokionez, ganekoa, jatorrizko Ubilla (**Ikus Ubilla**) baserriaren goiko aldean kokatuta zegoela adierazten du.